



EBAZPENA (OSAKIDETZA-FONIATRAK 06/2009 Espedientea)

Osoko bilkura

Javier Berasategi Torices jauna, presidentea

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, presidenteordea

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, kidea

José Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria

Vitoria-Gasteizen, 2009ko uztailaren 24an

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA), aipatutakoek osatuta eta Joseba Andoni Bikandi Arana txostengilea izanik, honako ebazpen hau eman du Osakidetza-Foniatrak 06/2009 Espedientean; ebazpen horrek lanbidez foniatra eta medikua den R.P.P. andreak, Txagorritxu Ospitaleko otorrinolaringologiako espezialista den P.G.R. jaunaren aurka jarritako salaketari dagokionez zehapen prozedura ez hasteko proposatu du.

AURREKARIAK

1. 2009ko martxoaren 30ean Lehiaren Euskal Zerbitzuak Lehiaren Euskal Auzitegian zehazpen-prozedura ez hastea artxibatzeko proposamena egin zuen. Espediente horrek 6/2008 zenbakia du Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan eta R.P.P. andreak, lanbidez foniatra eta medikua denak, Txagorritxuko Ospitaleko otorrinolaringologiako espezialista den P.G.R. jaunaren aurka zerbitzu horretan egindako salaketaren ondoriozkoa da. Proposamenean Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak salatutako gertaerei zegokienez zehatzeko espedientea ez hasteko eskaera egin zion Lehiaren Euskal Auzitegiari. Proposamen horretan ondoren datozen gertaeretan islatzen diren jarduerak aipatzen dira.
2. 2008ko uztailaren 16an lanbidez foniatra eta medikua den R.P.P. andreak sinatutako idazkia heldu zen Defentsarako Euskal zerbitzura; bertan Txagorritxuko Ospitalean otorrinolaringologiako espezialista den P.G.R. jaunaren aurkako salaketa egin zuen ustez Lehiaren Defentsarako Legeak debekatzen dituen kolusio-jarrerak izateagatik, eta Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari lehia askea baimentzeko behar bezala jokatzeko eskatu zion.



3. 2008ko uztailaren 24an Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak Lehiaren Batzorde Nazionaleko ikerketako zuzendariari ohar laburra bidali zion; eta adierazi zion ez zela atzematen kasuan kasuko jokabideak Euskal Autonomia Erkidegoaz gainetik dagoen eremu bati eragiten zionik, ez eta estatu mailako merkatu osoari ere. Horiek horrela, eta otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, bere iritziz Lehiaren Euskal Zerbitzuak du gai hori aztertzeke eskumena.

4. 2008ko uztailaren 30ean Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan Lehiaren Batzorde Nazionaleko ikerketako zuzendaria den C.P.P. jaunak bidalitako ofizioa jaso zuten. Ofizio horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuari jakinarazi zion, Lehiaren Batzorde Nazionaleko Ikerketa Zuzendaritzaren iritziz, Osakidetza-Foniatrak gaiari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko organoak direla uztailaren 3ko 15/2003 Legearen ustezko arau-hausteak aztertzeke eskumena dutenak.

5. 2008ko uztailaren 30ean Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak emandako ebazpenean honako hau erabaki zuen:

Isilpeko informazioa izapidetzeko fasea hastea, Arabako foniatría-arretari dagokionez kasuan kasuko zehazpen-espedientearen izapidea hasi baino lehen.

6. 2008ko irailaren 11n Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari informazioa eskatu zion isilpeko informazioa xede duen gaiarekin loturik. Zehazki, alderdi hauen gaineko informazioa eskatu zuen:
 - Osakidetzako foniatría-laguntzaren prestazioaren araubidea.
 - Foniatrek eta logopedek egiten duten lanaren arteko aldeak.
 - Fonazio-patologiei antzemateko teknikak eta horien deskribapena.
 - Arabako Osakidetzarako zerbitzuak ematen dituzten foniatría eta logopeda pribatuen zerrenda.
 - Arabako Osakidetzako langileak diren otorrinolaringologoaren zerrenda.
 - Araban laringeko estroboskopiak egiten dituzten Osakidetzako langileen zerrenda.

7. 2008ko urriaren 17an Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko ekonomia eta finantzako zuzendaria den J.E.C. jaunak sinatutako idazkia jaso zuten. Idazki horren bidez, eskatutako eta aurreko aurrekarian zerrendatutako informazioa bidali zion Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari.



8. 2008ko urriaren 28an Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak P.G.R. jaunari eta A.B.C. andreaki (Txagorritxuko Ospitalea) ondorengo informazioa eskatu zien:

- Laringeko estroboskopia egiten zaien pazienteen portzentajea.
- Paziente horietatik, ondoren foniatrarenera edo logopedarenera bidaltzen direnen portzentajea. Halaber, pazienteak foniatrarenera edo logopedarenera bidaltzeko prozeduren eta irizpideen zehaztapena.
- Pazienteak foniatra edo logopedarik ezagutzen ez badu horietako bat gomendatzen da.

Halaber, egun berean Espainiako Logopedia, Foniatria eta Audiologia Elkarteari foniatriako eta logopediako osasun-espezialitateak argitzeko eskatu zitzaion.

9. Aurreko aurrekarian adierazitako informazio-eskaerarekin lotuta, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak ondorengo informazioa jaso zuen:

- 9.1.-2008ko azaroaren 11n A.B.C. andreak sinatutako idazkia jaso zen desagertu den Ogasun eta Herri Administrazio Saileko erregistroan.
- 9.2.- 2008ko azaroaren 12an P.G.R. jaunak sinatutako idazkia jaso zuen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak.
- 9.3.-2008ko azaroaren 14an Espainiako Logopedia, Foniatria eta Audiologia Elkarteko presidentea den E.S.B. jaunak sinatutako idazkia jaso zuen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (espedienteko 43. orrialdea).

10.2008ko azaroaren 24an Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak Osasun Sailaren Arabako Lurralde Zuzendaritzari ondorengo alderdiei buruzko informazioa eskatu zion:

- Logopediako eta foniatriako errehabilitazio-sistema antolatzeko modua.
- Pazienteak logopedia- eta foniatria-tratamenduetara bideratzen dituzten medikuntzako espezialitateak.
- Logopedia- eta foniatria-errehabilitaziora bideraturiko pazienteen kopurua (2007. eta 2008. urteetan).
- Espezialitate bakoitzetik logopeda/foniatrarenera bideratzen diren pazienteen portzentajea (2007. eta 2008. urteetan).
- Osakidetzaren bidez logopeda eta foniatra bakoitzak egindako fakturazioa (2007. eta 2008. urteetan).



11.2008ko azaroaren 24an Lehiaren Defentsarako Euskal Erakundeak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari (Osasun Laguntzako zuzendariari) honako alderdi hauei buruzko informazioa eskatu zion:

- Osakidetzak Araban egindako estroboskopien eskaera-kopurua.
- Osakidetzak Araban agindutako foniatria- edo logopedia-tratamenduen kopurua; zein espezialistak agindu duen adierazi behar da (otorrinoak, neurologoak, errehabilitazioko medikuak).

12.2008ko abenduaren 15ean ORLko zerbitzuburu den E.R.G. doktore jaunak bidalitako idazkia jaso zen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan, informazioa eskatuz egindako idazkiari erantzunez; honako hau adierazi zuen:

- Estroboskopia ahots-korden miaketa funtzionala da eta fonazioari buruzko datu gehiago ematen dizkio otorrinologologoari.
- Estroboskopia edozein espezialistak egin dezake eta egin behar du, espezialitateko beste tresna bat bezala.
- Mediku otorrinologologoek Osakidetzak adierazitako jarraibideen arabera bidaltzen dituzte pazienteak logopedenera.

13.2008ko abenduaren 22an Arabako lurralde-zuzendariak sinatutako idazkia jaso zen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan, desagertu den Osasun Sailaren Arabako Lurralde Zuzendaritzari eskatutako informazioari lotuta; honakoa adierazten zuen:

- 2008ko azaroaren 1az geroztik, logopedia-errehabilitazioa emateko prestazioa modu honetan antolatuta dago:

Osakidetzako medikuak tratamendua hartzeko agintzen du; pazienteak Osakidetzako bulegoetara joaten da eta bertan tratamendua baimentzen da gehienez ere har daitezkeen saio-kopuruarekin eta hartzen den saio-kopuruaren arabera ordainduz. Halaber, informazio-orri bat ematen zaio; orri horretan logopedia errehabilitaziorako tratamendua emateko baimena duten Arabako Osasun-barrutiko profesional eta kabinete guztiak azaltzen dira. Pazienteak aukeratutako profesionalarengana jotzen du; honek, tratamendua amaitzen denean, prozesu osoko tratamenduaren gastuaren faktura Osakidetzari igortzen dio balorazioaren txostenarekin eta altarekin batera.

- 2008ko azaroaren 1az geroztik otorrinologologoek, neurologoek eta medikuntza fisikoko eta errehabilitazioko espezialistek bakarrik agindu dezakete logopedia-errehabilitaziorako tratamendua.



- 2007. eta 2008. urteetan zehar logopedia-errehabilitaziora ia 800 paziente bideratu dira urtero.
- Pazienteen % 75-80 inguru otorrinolaringologiako espezialitatetik bideratu dira.
- Ezin da egiaztatu logopedia-errehabilitazioa ematen duen profesional bakoitzaren fakturazioa. 2008ko azaroaren 1etik aurrera zehatz jakin ahal izango da.

14. 2009ko otsailaren 3an Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak Arabako Osasun Lurralde Zuzendaritzari ondorengo alderdiei buruzko informazioa eskatu zion:

- Artatutako paziente-kopurua eta Osakidetzaren bidez egindako fakturazioa logopeda/foniatra-errehabilitazioa ematen duten profesional bakoitzeko, 2008ko azaroaren 1etik 2009ko urtarrilaren 31ra arteko aldian.

Informazio-eskaera hori 2009ko otsailaren 26an bete zen Osasun Sailaren Arabako lurralde-zuzendaria den G.V.G. jaunak bidalitako idazkiaren bidez. Idazkiari 2008ko azaroaren 1etik 2009ko urtarrilaren 31ra arteko aldian logopedenera bidalitako pazienteen taula gehitu zion.

Halaber, 2009ko otsailaren 25ean zeuden logopedia-kabineteen eta -profesionalen zerrenda gehitu zuen.

15. 2009ko otsailaren 10ean Lehiaren Babeserako Euskal Zerbitzuak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari honako alderdi hauen inguruko informazioa eskatu zion:

- 2008ko azaroaren 1etik 2009ko urtarrilaren 31ra arteko aldian Txagorritxuko Ospitalean egindako estroboskopia-kopurua.

Informazio-eskaera hori Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Asistentzia Espezializatuko zuzendariordea den P.P.U.A. jaunak Lehiaren Babeserako Euskal Zerbitzura bidalitako idazkiaren bidez bete zen. Idazki horretan adierazten denez, honako hau da informazio-eskaeran aipatutako denbora-eremuan Txagorritxuko Ospitalean egindako estroboskopia-kopurua:

- 2008ko azaroan: 53
 - 2008ko abenduan: 34
 - 2009ko urtarrilean: 49
- Guztira: 136



ZUZENBIDEKO OINARRIAK

16. Lehiaren Defentsarako uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49.3. artikulua honako hau dio: Lehiaren Batzorde Nazionalak, Ikerketen Zuzendaritzak proposatuta, lege honen 1., 2. eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak ustez izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hastea erabakitzeak aukera izango du, eta ordura arteko jarduerak artxibatzeak aukera, legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.
17. Lehiaren Defentsarako Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, legean Lehiaren Batzorde Nazionala eta haren zuzendaritza-organoak aipatzen direnean, haien funtzioei, administrazio-ahalmenari eta prozedurei dagokienez, arloan eskumena duten autonomia-erkidegoetako instrukziorako eta ebazpenerako organoak barne direla ulertu behar dira, noiz eta Lehiaren Defentsarako Legearen 13. artikuluan ezarritako eskumenei buruzkoak diren.
18. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoan Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren zeregina esleitzeari buruzko apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuak, alde batetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia eta, bestetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua bereizten ditu. Biak beren eginkizunei dagokienez Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legeak ezarritakora egokitu beharko dira. Hala, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari dagokio jardunak artxibatzeari buruzko ebazpena ematea, legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela uste duenean; hori, Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legearen 44. artikuluekin bat etorriz.
19. Aztertzen ari garen kontuan, R.P.P. andreak, lanbidez foniatra eta medikua denak, Txagorritxuko Ospitaleko otorrinolaringologiako mediku espezialista den P.G.R. jaunak lehia askea eragozten duela salatu du. Azken mediku horren paziente batek foniatra baten tratamendua behar duenean, pazienteari ez baitio ematen medikua hautatzeko aukera, eta zuzenean bere emaztearenera (logopeda) edo lagun batenera bidaltzen du (foniatra). Salatzaileak, salatutako gertaerekin lotutako datu garrantzitsu gisa, adierazi du fonazio-patologiari laringeko estroboskopiaren bidez antzematen zaiola. Gasteizko proba mediko horiek guztiak salatu den P.G.R. doktoreak burutzen ditu. Hala, Arabako sare publikoko fonazio-patologia guztiak pertsona berberak bereganatzen dituzte beti.
20. Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi honek aztertu beharreko kontuan desberdintasun argia dago R.P.P. doktoreak salatutako gertaeren eta



Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak egiaztatutako gertaeren artean aipatutako salaketaren ondorioz hasitako isilpeko informazioaren aldiari. Hori dela eta, R.P.P. doktoreak 2008ko uztailaren 16an egindako salaketaren bidez adierazitako gertaerak ez datoz bat Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak, gertaera horien egiazkotasuna egiaztatzeko hasitako isilpeko informazioaren prozeduran ikusitakoarekin. Ondorioz, salaketaren xede diren gertaerak ez dira ontzat jo. Hori beharrezko oinarria da Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legearekin alderatu ahal izateko.

21. Salatzaileak azaldutako kasuan, gailentzen den merkatua Arabako Lurralde Historikoan foniatría edo logopedia tratamendua Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko mediku espezialistek desbideratzean datza. Salatzaileak dio, merkatu horretan Txagorritxu Ospitaleko otorrinolaringologiako mediku espezialista den P.G.R. jaunak lehia askea eragozten duela. Izan ere, pazienteak foniatría baten tratamendua behar duenean zuzenean emaztearenera (logopeda) edo lagunarenera (foniatría) bidaltzen du. Gainera, eta salatutako gertaerekin lotutako datu garrantzitsu gisa, salatzaileak adierazi du fonazio-patologiari laringeko estroboskopiaren bidez antzematen zaiola. Gasteizen egiten diren mota horretako proba mediko guztiak salatu den P.G.R. doktoreak egiten ditu.
22. Salaketaren xede diren gertaerak osasun-zerbitzu publikoaren arlokoak dira, Euskal Autonomia Erkidegoan Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak ematen duena. Osasun-arreta publikoa herritar guztientzat da eta berdintasun-baldintza beretan eman behar da (14/1986 Osasun Lege Orokorraren 46. artikulua). Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan osasuna babesteko eskubidea guztiena da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-sistemak banakakoen osasun-prestazioak bermatu beharko ditu.
23. Salaketan azaldutako esparruan Osasun Sailak, oro har, biztanleei osasun zerbitzuak bermatzen dizkie itunen bidez bitarteko publiko (Osakidetza) edo pribatuak kontratatuz. Zehazki, Osasun Sailak osasun-arreta orokorra ematen du, eta Osakidetzako mediku batek paziente bati tratamendua hartzeko agintzen badiu, pazienteak profesional baten kontsultara joko du eta honek tratamendua emango dio. Itundu gabeko prestazioa izanez gero, pazienteak tratamenduaren kostua ordaindu beharko du, eta ondoren zenbatekoa itzuliko zaio. Hala ere, 2008ko azaroaren 1etik aurrera, mediku batek tratamendua hartzeko beharra agintzen badiu, pazienteak Osakidetzaren bulegoetara jo behar du tratamendua baimentzeko gehienez ere har ditzakeen saio-kopuruarekin eta hartzen den saio-kopuruaren arabera ordainduz. Halaber, informazio-orri bat ematen zaio; orri horretan logopedia-errehabilitaziorako tratamendua emateko baimena duten Arabako



osasan-barrutiko profesional eta kabinete guztiak azaltzen dira. Tratamendua amaitzen denean, pazienteak aukeratutako profesionalak prozesu osoko tratamenduaren gastua fakturatu du balorazioaren txostenarekin eta altarekin batera.

24. Hau da, Osakidetzak medikuak agindutako tratamendua baimentzen du eta dauden profesionalen zerrenda ematen dio pazienteari. Pazienteak horien artetik bat aukeratu du. Tratamendua amaitu ondoren Osakidetzara bidaltzen da faktura, oro har.
25. Arabako Lurralde Historikoan Osakidetzaren langileak diren otorrinolaringologo profesionalak 12 dira; horietatik 7k Txagorritxuko Ospitalean lan egiten dute (horien artean salatuak) eta 5ek, berriz, Santiago Ospitalean.
26. Osakidetzaz-Euskal Osasun Zerbitzuak Arabako Lurralde Historikoan ez du foniatzarik edo logopedarik bere langileen artean.
27. Foniatra pribatu bi daude Arabako Lurralde Historikoan: S.B.C. andrea eta R.P.P. (salatzailea).
28. Arabako Lurralde Historikoan dauden logopeda pribatuei dagokienez, Osakidetzak dio 18 profesional daudela. Horietatik 15ek Gasteizen dute kontsulta, bik Laudion eta batek Agurainen.
29. Salatzaileak bere salaketa bermatzeko datu garrantzitsu gisa dio fonazio-patologiari laringeko estroboskopiaren bidez antzematen zaiola, eta salatua dela Gasteizen laringeko estroboskopia guztiak egiteko arduraduna. Salatzaileak dioenez, horrek esan nahi du Arabako sare publikoan patologia hori duten guztiak S.B.C. andrearenera edo P.G.R. jaunaren emaztearenera bidaltzen direla.
30. Hala ere, eta Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak lortutako isilpeko informaziotik ondorioztaturiko datuen arabera, fonazio-patologiari honako proba hauen bidez antzematen zaio:
- Zeharkako laringoskopia.
 - Nasofibrolaringoskopia.
 - Laringeko estroboskopia.



Proba horien artean Nasofibrolaringoskopia da erabiliena, nahiz eta laringeko estroboskopiaren probaren bidez diagnostiko zehatzagoa eta ahots-korden azterketa sakonagoa lortu.

Zeharkako laringoskopia eta nasofibrolaringoskopia espezialista otorrinolaringologo guztiek egiten dituzte, eta espezialista horiek zuzenean fonazio- eta logopedia-tratamendura bidera ditzakete pazienteak.

Laringeko estroboskopia, Txagorritxuko Ospitaleko ORLko zerbitzuburuak adierazi duen bezala, edozein espezialista otorrinolaringologok egin dezake. Baina kontua da Osakidetzako osasun-zerbitzu publikoen antolamenduan Arabako Lurralde Historikoan Txagorritxu Ospitalean baino ez dela egiten, erdi bana P.G.R. eta A.B.C. doktoreen artean. Hala denean, pazientea laringeko estroboskopiaren proba egitera bidali duen medikua bera izango da probaren emaitza baloratzen duena pazientea foniatria- edo logopedia-tratamendura bideratzeko.

Salatuak 2007 eta 2008 urteetan 250 estroboskopia egin zituen gutxi gorabehera (% 18 egindako tratamenduei dagokienez).

Beraz, eta salatzaileak adierazitakoa ez bezala, estroboskopia ez da fonazio-patologiari antzemateko proba bakarra, ezta erabiliena ere. Hala, foniatria- edo logopedia-tratamendua egitera estroboskopiaren proba egin gabe ere bidal daiteke pazientea.

Gainera, estroboskopiaren probaren kasuan, pentsatzekoa da egindako estroboskopia guztiek ez zutela ondoren logopedia- edo foniatria-tratamendurik izan, eta tratamendu horiek beharrezkotzat jo izanez gero proba eskatu zuen espezialistak aginduko lukeela.

2008ko azaroaren 1az geroztik logopedia- edo foniatria-tratamenduak agindu ditzaketen sendagileak otorrinolaringologoak, neurologoak eta medikuntza fisikoko eta errehabilitazioko espezialistak dira. Aipatutako data baino lehen zenbait espezialitatetako profesionalek ere agindu zituzketen.

Halere, batez ere otorrinolaringologoek agintzen dituzte aipatutako tratamenduak. Isilpeko informazioaren fasean jaso da 2007 eta 2008 urteetan logopedia/foniatriako 1.600 tratamendu agindu zirela. Horietatik 1.350 inguru otorrinolaringologiako espezialistek bidali zituzten.

31. Osakidetzak-Euskal Osasun Zerbitzuak aipatzen duenez, logopedia- edo foniatria-tratamendua agintzen denean, baimendutako profesional guztiak biltzen dituen zerrenda bat ematen dio medikuak pazienteari, hark modu onenean egokitzen zaiona hauta dezan. Horrez gain, 2008ko azaroaren 1az geroztik Osasun Sailaren Arabako Lurralde Zuzendaritzak baimentzen du tratamendua, eta pazienteari aipatutako zerrenda helarazten dio.



32. 2008ko azaroaren 1etik 2009ko abenduaren 31ra logopedia-kabineteek egindako tratamendu-kopuruari eta fakturazioari dagokienez, ezin izan da frogatu salatuaren aldetik ustezko onurazko tratua jaso duten logopedek merkatua erabat hartuta dutenik. Azken horiek % 13,04 eta % 11,75 fakturatu zuten hurrenez hurren, eta kuota handiena duen zentroak, aldiz, % 14,72 fakturatu zuen.

Baimendutako tratamenduen kasuan, kabinete berberak ageri dira lehen hiru postuetan, baina ordena ezberdinean. Horien merkatu kuota, baimendutako tratamenduen kopuruaren bidez neurtzen dena, % 10 eta % 16 bitartekoa da. Horien atzetik datoz beste 6 zentro % 5 eta % 10 bitarteko merkatu kuotarekin, eta gainerakoek (7 zentro) % 5 baino kuota txikiagoa dute.

33. Azaldutako guztia kontuan hartuta, alde nabarmena antzematen da salatzailleak azaldutako gertakarien eta Osakidetzak jasotako artean; horiei esker ondoriozta daiteke salatzailleak azaldutako gertakariak ez datozela bat errealitatearekin. Hala ere, R.P.P. andreak Arabako Osakidetzak foniatria edo logopediako arreta-prestazio sistemaren lehiaren defentsa araudiarekin bat ez datorrela salatzen duenez, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak azaldutako gertakariak Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legearekin egiaztatu behar dira.

Hortaz, lehenik eta behin, aipatu behar da Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legearen 1. artikulua zenbait eragile ekonomikoen arteko edo elkarte bateko borondateen bat etortzea eskatzen duela artikulua hori aplikatzeko. Esku artean dugun kasu honetan salatzailera P.G.R. doktorearen aurka zuzentzen da ustez lehia eragozten duen jarrera unilaterala dela medio. Aipatutako jarrera unilateralak ezingo luke Lehiaren Defentsarako Legearen lehen manua urratu, hark borondateen bat etortzea eskatzen baitu.

Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak jasotako gertakarietatik ere ezin da ondorioztatu P.G.R. doktoreak eta Arabako gainerako foniatria edo logopeda pribatuen edo horietako batzuen artean borondateen bat-etortzerik egon zenik. Osasun sistema publikoak ez duenez zuzenean espezialitate horretarako prestaziorik eskaintzen, ez eta Osakidetzak hitzarmen batzuen bidez ere, Osakidetzako medikuak foniatria- edo logopedia-tratamendua hartzeko agintzen badu, Osasun Sailaren Arabako Lurralde Zuzendaritzak tratamendua baimentzen du eta pazienteari Arabako Osasun-barrutian baimendutako profesional eta kabinete pribatu guztiak jasotzen dituen orrialdea emango dio. Pazienteak erabakitzen du bere kabuz eta askatasun osoz Osakidetzak baimendutako profesionalen artean.

Era berean, 2008ko azaroaren 1etik 2009ko urtarrilaren 31ra bitartean egindako foniatria- eta logopedia-tratamenduen fakturazioari eta kopuruari



dagokienez, ikus daiteke salatuaren emazteak, P.I.P. doktoreak, edo S.B.C. doktoreak, % 13,04 eta % 11,75 fakturatu ziotela Osakidetzari hurrenez hurren; fakturazio kuota handiena duen zentroak, aldiz, % 14,72 fakturatu zuen. . Jarraian 8 zentro daude merkatuko % 5 eta % 10 bitarteko fakturazioa izan dutenak, eta 5 zentro daude % 5 baino fakturazio baxuagoa izan dutenak. Hau da, foniatria- eta logopedia-tratamendua Osakidetzaren bitartez egiten denean baimendutako espezialista pribatuen artean egiten da, eta espezialista horietako inork ez ditu tratamenduak bereziki bereganatzen.

Hortaz, hori guztia kontuan hartuta ondorioztatu dezakegu ez dagoela salatuaren eta beste profesional batzuen (foniatrak edo logopedak) artean sektoreko lehia librea eragotzi edo Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legearen 1. artikulua urratzen duen borondateen bat-etortzerik.

34. Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legearen 2. artikulua urratzeko, aztertutako jarreran inplikaturako eragileek (kasu honetan P.G.R. doktorea) aurretiaz ezarritako merkaturan nagusitasun-posizioa izan beharko lukete. . Eskuaratean dugun kasu honetan aipatu behar da merkatu hori Osakidetzak foniatria- edo logopedia-tratamenduetarako pazienteak espezialistetara bidaltzen dituen merkatu gisa definitu behar dela.

Horren haritik nabarmendu behar da Otorrinolaringologian espezialista den P.G.R. doktoreaz gain, Osakidetzak badituela Arabako Lurralde Historikoan beste 11 profesional espezialitate berekoak; horietako seik Txagorritxu Ospitalean egiten dute lan, eta bostek Santiagokoan.

Era berean, badira otorrinolaringologoz gain logopedia- edo foniatria-tratamendua agindu dezaketen beste espezialista batzuk ere; halere, otorrinolaringologiako espezialistek agintzen dituzte ia tratamendu gehienak, eta besteek, aldiz, tratamenduen % 20, gehienez.

35. Bestalde, foniatria- edo logopedia-tratamendua agintzeko, espezialistek bi proba osagarri egiteko aukera dute, zeharkako laringoskopia eta nasofibrolaringoskopia, alegia. Azken hori da gehien erabiltzen dena eta otorrinolaringologiako espezialista guztiek egiten dute. Modu horretan otorrinolaringologiako espezialista guztiek zuzenean foniatria- eta logopedia-tratamendua hartzea agindu dezakete.

Laringeko estroboskopia, otorrinolaringologiako edozein espezialistek egin ahal badu ere, Araban Txagorritxu Ospitalean bakarrik egiten da, erdi bana P.G.R. eta A.B.C. doktoreen artean. Kasu horretan aipaturako proba agindu duen otorrinolaringologoak aginduko du, txostena kontuan hartuta, logopedia- edo foniatria-tratamendua, Osakidetzak ezarritako baldintzei jarraikiz. Horrez gain, proba beste espezialista batek egiten badu proba



egitea eskatu duen horrek agindu beharko du dagokion tratamendua. Horri Osakidetzak tratamendua egiteko baimendutako profesionali buruzko informazioa gehitu beharko zaio, eta pazienteak askatasunez hautatuko du horien artean.

2007. eta 2008. urteetan P.G.R. doktoreak 250 estroboskopia inguru egin zituen, eta horiek guztiek seguruenik ez dute atzetik logopedia- edo foniatría-tratamendurik ekarri. . Gainera, azpimarratu behar da P.G.R. doktoreak egindako estroboskopia-kopuruak logopedia-tratamenduen % 18 hartzen duela.

Azkenik, eta Osakidetzak aipatutako tratamenduak egiteko baimendutako Arabako Lurralde Historikoko profesionali dagokienez, 33. zuzenbideko oinarrian aipatutako gertakariak errepikatzea baino ez da geratzen; hor ikus daitekeenez, Osakidetzak baimendutako tratamenduen % 25 bi kabinetek egiten badute ere (salaketan aipatutako bi profesionalak), gainerakoa baimendutako kabinete pribatuek egiten dute, eta horietako batek kopuru osoaren % 14,72 hartzen du. Datu horietatik ondorioztatu daiteke foniatría- eta logopedia-tratamenduen eskaintza Osakidetzak baimendutako zenbait zentron artean banatzen dela, hein handi edo txikiagoan, eta horietako batek ere ez dituela Osakidetzak pazienteei emandako tratamenduak bereganatzen.

Aipatutako guztia dela medio, ezin da ikusi P.G.R. doktoreak Arabako logopedia- edo foniatría-laguntzako postu menderatzailea duenik, ez eta P.I.P. edo S.B.C. medikuek aipatutako merkatu osoa hartzen dutenik ere; hortaz, ezin da esan Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legearen 2. artikulua urratu dutenik.

36. Azkenik, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak ondorioztatutako gertakariak ez dira 15/2007 Legearen 3. artikularekin egiaztatuko, azken horren helburua lehia modu esanguratsuan kaltetu dezaketen bidegabeko lehiako jarrerak zigortzea baita, eta hori ezin du salatutako jarrerak eragin.
37. Horregatik, aipatutako guztitik ulertu behar da salaketan azaldutako gertakariak ezin direla egiazkotzat jo eta salatutako gertakariari buruz Lehiaren Babeserako Euskal Zerbitzuak frogatutakoak ez duela Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legea urratzen; hortaz, Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legearen 44. artikularen arabera, zehapen-espedita ez hastea erabaki da, R.P.P. andreak P.G.R. jaunaren aurka aurkeztutako salaketaren ondorio gisa; horrez gain, jardunak artxibatzea ere erabaki da.



Azaldutako guztiagatik, aipatutako manuak kontuan hartuta eta oro har aplikatu beharreko ginerako manuak ikusita, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak

HAU EBATZI DU

BAKARRA.- Zehapen-espedientea ez hasteko eta jardunak artxibatzeko Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren proposamena kontuan hartzea, R.P.P. andreak P.G.R. jaunaren aurka aurkeztutako salaketaren ondorio gisa.

Ebazpen hau helarazi beharko zaio Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, R.P.P. andreak eta P.G.R. jaunari, baita Lehiaren Batzorde Nazionalari ere; guztiei jakinarazi beharko zaie honek bide administratiboa bukatzen duela eta honen aurka Administrazioarekiko auzibideko errekurtoa aurkeztu daitekeela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, jakinarazpenen egin eta bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko uztailaren 24an

PRESIDENTEA
JAVIER BERASATEGI TORICES

PRESIDENTEORDEA
JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA

KIDEA
JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE

IDAZKARIA
JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI